

Elkartasunaren eta komunitateari zerbitzu ematearen printzipioekiko konpromisoaren esparruan

Michelin Espainia Portugal Fundazioak eta Arabako Gurutze Gorriak hitzarmen bat sinatu dute Gurutze Gorriaren Enplegu Plana eta Ibulgailuen Parkea bultzatzeko

- **Gizarteratzea eta laneratzea hobetzeko beharrezkoak diren koordinazio-mekanismoak ezartzea erabaki dute, pertsona kalteberek enplegu bat baldintza-berdintasunean lortu eta atxiki ahal dezaten.**
- **Mugikortasunari dagokionez, bultzada horrek hiru eremu nagusi izango ditu: mugikortasun murriztua duten pertsonentzat egokitutako ibilgailuen parkea, garraio sozio-sanitarioa eta erakundeak bereak dituen beste ibilgailu batzuk.**

Gasteiz, 2019ko apirilaren 5a.- Michelin Espainia Portugal Fundazioak eta Arabako Gurutze Gorriak hitzarmen bat sinatu dute, eta mugikortasun murriztua duten pertsonen mugikortasuna eta pertsona kalteberen enplegarritasuna hobetzera konprometitzen dira hitzarmen horren bidez.

Arabako Gurutze Gorriko idazkari probintzial Xabier Manzanok eta Michelin Espainia Portugal Fundazioko zuzendari nagusi María Paz Robina Rosat-ek berretsi dute akordioa.

Alde batetik, Michelin Espainia Portugal Fundazioak beharrezko pneumatikoak emango ditu Arabako Gurutze Gorriko ibilgailuen parke probintzialaren mantentze-lanerako, pneumatiko horien muntaiaren eta orekatzearen kostua bere gain hartzearekin batera.

Bestalde, Michelin Espainia Portugal Fundazioak urtero emango du diru-kopuru bat Gurutze Gorriaren Enplegu Planerako, bazterkeria-arriskuan dauden kolektiboen eskumen pertsonalak hobetzeko eta lan-merkatuaren errealitatera egokitzeko, ondorengo iraunkortasuna eta autonomia bermatuz.

Urtebeteko iraunaldia izango du hitzarmenak eta urtetik urtera luzatu ahalko da.

Álvaro García Serrano
Komunikazio-arduraduna

Arabako Gurutze Gorria
Tel.: 945 22 22 22 luzap. 8 | 678 40 14 43
comunicacionalava@cuzroja.es

www.cuzroja.es | www.cuzroja.tv
fb.com/cuzrojaalava | twitter.com/cuzrojaalava | instagram.com/cuzrojaalava